# Bestelako Xedapenak

**KULTURA SAILA**

**2500**

AGINDUA, 2009ko apirilaren 8koa, Kultura sailburuarena, antzerki-produkziorako laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Arte eta kultura alorreko jarduerei loturiko eskumenak eta horien zabalkundeari dagozkionak Kultura Sailari dagozkio, horixe xedatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuan. Eskumen horiek Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari esleitzen dizkio otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuak, Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duenak.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak egoki deritzo, bere eskumenen baitako zeregina den aldetik, izaera profesionala duten antzerki-jarduerak sustatzeko aukera emango duen bidea antolatzeari. Horretarako, diru-laguntzak emango zaizkie antzerki-talde profesionalei egiten dituzten antzezlanen produkzioa ahalbidetzen duten prozesu desberdinak finantzatzeko. Neurri horren bitartez, euskal antzerki-taldeen sorkuntza-lana bultzatzeko formula lortu nahi da eta, bide batez, talde horien ahalegina errekonozitzeaz gain, beren lanak beste merkatu batzuetara zabaltzeko aukerak eskaini, beren finantzabideak ugaritu daitezen.

Ondorioz,

EBATZI DUT:

I. KAPITULUA
ARAU OROKORRAK

***1. artikulua.***– Xedea.

Agindu honen bitartez, 2009ko ekitaldian burutuko edo hasiko diren antzerki-produkziorako diru-laguntzak emateko araubidea ezarriko da.

***2. artikulua***.– Modalitateak eta diru-baliabideak.

1.– Laguntza hauen gehienezko zenbateko orokorra bederatziehun eta bost mila (920.000) eurokoa izango da eta gehitu egin ahal izango da xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

2.– Zenbateko globala honela banatuko da deialdi honetako modalitateen artean:

# Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**

**2500**

ORDEN de 8 de abril de 2009, de la Consejera de Cultura, por la que se regula el régimen de concesión de subvenciones a la producción teatral.

De conformidad al Decreto 8/2005, de 27 de junio, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, competen al Departamento de Cultura las funciones relativas a actividades artísticas y culturales así como su difusión. Las referidas funciones se atribuyen en el seno del Departamento de Cultura, y a través del Decreto 25/2006, de 14 de febrero, por el que se establece su estructura orgánica, a la Dirección de Promoción de la Cultura.

Dicha Dirección de la Promoción de la Cultura estima oportuno proceder a arbitrar un cauce que permita la promoción de las actividades teatrales de carácter profesional, actuación encuadrable en su ámbito competencial, mediante la concesión de ayudas a los diferentes procesos que confluyen en la producción teatral. Con tal medida se pretende obtener una fórmula de promoción de la labor creativa de los grupos teatrales vascos y posibilitar además, que tales grupos obtengan el reconocimiento a su labor y abran los posibles mercados que permitan incrementar la financiación de los mismos.

En su virtud,

RESUELVO:

CAPÍTULO I
NORMAS GENERALES

***Artículo 1.***– Objeto.

Es objeto de la presente Orden la regulación de las condiciones de concesión de subvenciones a la producción teatral de carácter profesional que se realicen o se inicien durante el ejercicio 2009.

***Artículo 2.***– Modalidades y Recursos económicos.

1.– El importe global destinado a estas subvenciones es de novecientos veinte mil (920.000) euros y podrá verse incrementado en los términos recogidos en la disposición adicional.

2.– El importe global se distribuirá de la siguiente forma entre las modalidades de ayuda que comprende la presente convocatoria:

– Hirurogei mila (60.000) euro antzerki-talde sortu berrien produkzioak gauzatzeko.

– Hirurehun eta hogeita bost mila (325.000) euro produkzioetarako.

– Bostehun eta hogeita hamabost mila (535.000) euro finkatutako antzerki-taldeen jardueretarako.

3.– Modalitate bakoitzerako adierazitako zuzkidura hori izanik ere, eskabiderik ez dagoelako, eskakizunak betetzen ez direlako edota aurkeztutako eskabideek behar adinako kalitaterik ez dutelako laguntzetako bat edo beste agortzen ez denean, Balorazio Batzordeak modalitateetako baten kopurua handitu ahal izango du, bestetik sobratzen denarekin, edo alderantziz, betiere dagokion modalitatea oraindik erabaki gabe badago.

4.– Herri administrazio desberdinetatik jasotako diru-laguntza guztiek ezingo dute gainditu diruz lagundutako jardueraren kostuaren % 70.

5.– Eskatzaile bakoitzak proiektu bat baino gehiago aurkez badezake ere, pertsona/entitate onuradun bakoitzeko proiektu bakar batek jaso ahal izango du diru-laguntza. Antzezlanen produkzioak gauzatzeko modalitateari dagokionez, balorazio-batzordeak ez die muga hori aplikatuko eta ahalmena izango du gehienez ere pertsona edo erakunde onuradun bakoitzeko bi proiektu diruz laguntzeko; betiere, aipatutakoek behar den moduan kreditatzen badute zenbait produkzio aldi berean ekoitzi eta banatzeko ahalmena dutela eta, bereziki, talde artistiko eta tekniko desberdinek parte hartzen badute.

***3. artikulua***.– Pertsona edo erakunde onuradunak.

1.– Agindu honetan ezartzen diren bestelako berariazko eskakizunez gain, laguntza hauek eskatu ahal izateko, nahitaezkoa izango da baldintza hauek betetzea: pertsona fisiko edo juridiko pribatuak izatea eta Europar Batasuneko estatu kide batean ezarrita egotea; behin diru-laguntza emanez gero establezimendu egonkor bat izatea Euskal Autonomia Erkidegoan eta alta hartu jarduera ekonomikoen zergako antzerki-jardueretarako epigrafean. Eta pertsona juridikoen kasuan, estatutuetan haien helburu edo xede sozial gisa antzerki-jarduerak garatzea izatea.

2.– Pertsona juridiko batek establezimendu egonkor baten bidez diharduela zehazteko, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontzertu Ekonomikoa onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak 21.bi artikuluan zer dioen hartuko da aintzakotzat.

3.– Kultura-elkartearen edo fundazioaren izaera juridikoa duten eskatzaileek ezingo dituzte jaso diru-laguntza hauek.

4.– Ezin dute deialdi honetan parte hartu diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearekin administratiboki edo penalki zigortutako erakunde eskatzaileek, ezta horretarako gaitasuna kentzen duen legezko debekurik dutenek, Emakumeen

– Sesenta mil (60.000) euros para la realización de producciones de compañías de nueva creación.

– Trescientos veinticinco mil (325.000) euros para la realización de producciones.

– Quinientos treinta y cinco mil (535.000) euros para la actividad de las compañías teatrales consolidadas.

3.– Sin perjuicio de las dotaciones indicadas en cada modalidad, cuando por razón de falta de solicitudes o de incumplimientos de requisitos, o de falta de calidad de las solicitudes presentadas no se agotara la cuantía establecida en una de las modalidades, la Comisión de Valoración podrá proponer motivadamente el incremento de la cantidad establecida en otra, siempre y cuando la modalidad a considerar se encuentre aún sin resolver.

4.– El máximo total de las aportaciones económicas procedentes de las distintas administraciones públicas no podrá, en ningún caso, superar el 70% del coste de la actividad para la que se solicita ayuda.

5.– Sin perjuicio de la posible presentación de diversos proyectos por cada solicitante, tan sólo podrá ser objeto de subvención un proyecto por persona/entidad beneficiaria. En la modalidad de ayudas a producciones, la Comisión de Valoración no aplicará esta limitación pudiendo subvencionar hasta un máximo de dos proyectos por persona o entidad beneficiaria, siempre y cuando acrediten debidamente el poder producir y distribuir varias producciones simultáneamente, especialmente si participan equipos artísticos y técnicos diferentes.

***Artículo 3.***– Personas o entidades beneficiarias.

1.– Sin perjuicio de cuantos otros requisitos queden específicamente establecidos en la presente Orden, podrán solicitar estas ayudas las personas físicas y jurídico privadas establecidas en un estado miembro de la Unión Europea que una vez se le conceda la ayuda, dispongan de un establecimiento permanente en la Comunidad Autónoma del País Vasco y se den de alta en el correspondiente epígrafe de actividades teatrales del impuesto de actividades económicas. En el caso de las personas jurídicas, tener social o estatutariamente como objeto o fin social el desarrollo de actividades teatrales.

2.– Para determinar si una persona jurídica opera mediante establecimiento permanente se estará a lo dispuesto en el artículo 21.dos de la Ley 12/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

3.– Como beneficiarios de estas ayudas, quedan excluidos los peticionarios que ostenten la forma jurídica de asociación cultural o fundación.

4.– No podrá concurrir a esta convocatoria quienes se encuentren sancionados administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o se hallen incursos en prohibición legal alguna que les inhabilite para ello,

eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legezko azken xedapenetako seigarrena urratuz sexu-diskriminazioa egiteagatik debeku horrekin zigortuta daudenak barne.

5.– Pertsona onuradunei laguntzak ematea eta, hala dagokionean, horien ordainketa, baldintzaturik geratuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomoek ematen dituzten izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan dirua itzultzeko edo zehapenen bat ezartzeko espedientea hasi baldin bada eta oraindik izapideak amaitu gabe baldin badaude, prozedura hori burutu arte.

***4. artikulua.***– Laguntzak emateko prozedura.

Deialdi honen kargura emango diren diru-laguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez esleituko dira. Beraz, diru-laguntza jasotzeko ezarritako gehienezko muga errespetatuz eta finkatutako irizpideak erabiliz, onuradun kopuru bat hautatuko da, hain zuzen ere, proiektuen kalitatea eta bideragarritasuna ziurtatuko duen kopurua, betiere, proiektuen dimentsioari begira.

***5. artikulua.***– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, agindu hau argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

2.– Eskabideak Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeari zuzenduko zaizkio eta, deialdiko eranskinetako dokumentazioarekin batera, Kultura Saileko dagokion lurralde zerbitzuan aurkeztuko dira zuzenean edo 30/1992 Legean ezarritako edozein bidetatik (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

***6. artikulua.***– Laguntzak kudeatuko dituen organoa.

Kultura Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio deialdi honen bidez emango diren diru-laguntzak kudeatzeko lanak egitea.

***7. artikulua.***– Aurkeztutako eskabidean egindako akatsak zuzentzea.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak eskabidean zerbait gaizki dagoela edo zerbait falta dela ikusten badu, hamar eguneko epea emango dio interesatuari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko, eta ohartaraziko dio eskatutakoa ez egiteak eskabideari uko egitea ekarriko duela. Uko-egite hori ebazpen baten bidez gauzatuko da.

***8. artikulua.***– Balorazio Batzordea.

1.– Modalitate bakoitzera aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, Balorazio Batzorde bat eratuko da. Hauek izango dira kideak:

con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

5.– La concesión y, en su caso, el pago de las ayudas a las personas beneficiarias de éstas quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

***Artículo 4.***– Procedimiento de concesión.

Las subvenciones que se otorguen con cargo a la presente convocatoria lo serán mediante el procedimiento de concurso, de manera que respetándose el límite máximo de subvención que se establece, tan solo se seleccionen conforme a los criterios fijados, un número de personas o entidades beneficiarias que asegure la calidad y viabilidad de los proyectos seleccionados en cuanto a su dimensión.

***Artículo 5***.– Presentación de solicitudes.

1.– El plazo de presentación de solicitudes será de un mes desde el día siguiente a la fecha de publicación de la presente Orden.

2.– Dichas solicitudes habrán de dirigirse al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes y se presentarán, junto con la documentación exigida en los anexos de la convocatoria en los servicios territoriales de Cultura existentes en cada uno de los Territorios Históricos, bien directamente o por cualquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Artículo 6***.– Órgano de gestión de las ayudas.

Corresponderá a la Dirección de Promoción de la Cultura del Departamento de Cultura la realización de las tareas de gestión de las subvenciones previstas en la presente convocatoria.

***Artículo 7***.– Subsanación de defectos en la solicitud presentada.

Si la Dirección de Promoción de la Cultura advirtiera en la solicitud presentada la existencia de algún defecto u omisión, requerirá a la persona interesada para que en un plazo de diez días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución emitida al efecto.

***Artículo 8.***– Comisión de valoración.

1.– Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas en cada modalidad se constituirá una Comisión de Valoración compuesto por los siguientes miembros:

– Lehendakaria: Kultura Sustatzeko zuzendaria.

– Bokalak: gutxienez 7 kide eta gehienez 9, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak izendatuak, agindu honetako xedean aditu diren pertsonen, programatzaileen eta arte eszenikoekin zerikusia duten Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide elkarteen ordezkarien artean. Gainera, beste hiru bokal ere izendatuko dira, foru aldundi bakoitzetik bat, aldundiek berek proposatuta.

– Idazkaria: Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako teknikari bat izango da, zuzendariak izendatua. Hitza izango du, baina botorik ez.

2.– Balorazio Batzordearen osaera Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen ebazpen baten bitartez jakinaraziko da.

3.– Eskaria egin duten pertsona edo erakunde guztiek izango dute aukera, hala eskatzen badute, beren proiektua batzordearen aurrean defendatzeko (XII. eranskina). Proiektu bakoitzari ez zaio 15 minutu baino gehiago eskainiko.

4.– Batzorde honek, ezarritako irizpideak kontuan hartuta, ebazpen proposamena egingo dio Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeari.

***9. artikulua.***– Ebazpena.

1.– Deialdi honetako diru-laguntzak esleitzeko ebazpena Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak emango du, balorazio batzordearen proposamena ikusita, sei hilabeteko epean deialdi-agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera.

2.– Proposamen honetan ordezko onuradunak izendatu ahal izango dira, gerta baitaiteke hautatutakoek uko egitea, betiere artean ordainketarik egin ez bada.

3.– Ebazpen hori esleipendunei jakinaraziko zaie, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, denek horren berri izan dezaten.

4.– Ebazteko epea amaituta, interesatuari inolako jakinarazpenik egin ez bazaio, eskabidea errefusatutzat jo daiteke, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako ondorioetarako.

***10. artikulua.***– Diru-laguntzen bateragarritasuna.

1.– Deialdi honetako diru-laguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuek helburu berbererako emandakoekin, betiere gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Gainfinantzaketarik badago, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino.

– Presidente: el Director de Promoción de la Cultura.

– Vocales: entre 7 y 9 vocales nombrados por el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes entre programadores, representantes de asociaciones profesionales vinculadas a las artes escénicas radicadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco y entre otros expertos o expertas en la materia objeto de esta Orden. Además nombrará 3 vocales, uno por cada Diputación Foral a propuesta de las mismas.

– Secretario/a: actuará como Secretario/a de la Comisión con voz pero sin voto, una persona técnica de la Dirección de Promoción de la Cultura designada por el director de la misma.

2.– La composición de la Comisión de Valoración se hará pública mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

3.– Todas las personas o entidades solicitantes tendrán la opción de defender su proyecto ante la Comisión si así lo solicitaran (anexo XII). El tiempo dedicado a cada proyecto no excederá de los 15 minutos.

4.– Dicha Comisión, en base a los criterios de adjudicación establecidos, elevará la oportuna propuesta de resolución al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

***Artículo 9.***– Resolución.

1.– La resolución de concesión de las subvenciones previstas en esta convocatoria será dictada, a la vista de la propuesta elevada por la Comisión de Valoración, por el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes en el plazo de 6 meses a contar desde la fecha en que surta efectos la presente Orden de convocatoria.

2.– Tal resolución incluirá beneficiarios suplentes para el caso en que los seleccionados efectúen renuncias, siempre y cuando no se haya procedido abono alguno.

3.– Dicha Resolución se notificará a los interesados y será publicada en el Boletín oficial del País Vasco a los efectos de su general conocimiento.

4.– Si una vez transcurrido el plazo de resolución la misma no hubiera sido notificada al interesado, la solicitud correspondiente podrá entenderse desestimada, a los efectos de lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Artículo 10.***– Compatibilidad de las subvenciones.

1.– Las subvenciones previstas en la presente convocatoria son compatibles con aquellas otras que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por cualquier otra entidad pública o privada, siempre que de ello no se derive sobrefinanciación. Caso de producirse ésta se reducirá el importe de la subvención concedida hasta el límite máximo que corresponda.

2.– Agindu honetako modalitate desberdinetan araututako laguntzak ez dira bateragarriak elkarrekin. Laguntza hauen eskatzaileek ezin izango dute aurkeztu eskakizun bera konpainia sortu berrien modalitatean eta produkzioen modalitatean. Horrela eginez gero Balorazio Batzordea izango da, eskakizuna aztertu eta eskatzaileri galdetu ondoren dagokion modalitatera bideratuko duena.

***11. artikulua.***– Pertsona edo erakunde onuradunen betebeharrak.

Deialdi honetan arautzen diren diru-laguntzen pertsona edo erakunde onuradunek betebehar hauek izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, pertsona/entitate onuradunek diru-laguntza eman zaiela adierazten duen jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean berariaz uko egiten ez badiote, onartu egin dutela ulertuko da.

b) Diru-laguntza agindutako helburu zehatzerako erabiltzea.

c) Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari diru-laguntzen fiskalizazio-lanetan behar duten informazio guztia ematea.

d) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren babesa berariaz aipatzea katalogo, egitarau, iragarki-kartel, argazki eta gainerako material grafikoan. Material hori euskaraz egingo da, eta beste hizkuntza batzuetan ere egin ahal izango dira.

***12. artikulua***.– Diru-laguntza ordaintzea.

Deialdi honetako diru-laguntzak honela ordainduko dira:

a) Diru-laguntzaren % 47 diruz lagundutako jarduerari dagozkion lanak hastean. Onuradunak aldez aurretik jakinarazi beharko du, berariaz, noiz hasiko diren aipatutako lanok.

b) Diru-laguntzaren beste % 33 lehenengo ordainketan emandako dirua (% 47a) justifikatu ondoren eta, betiere, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera.

c) Diru-laguntzaren gainerako % 20 antzezlana estreinatu dela egiaztatu eta diru-laguntza osoa 13. artikuluan zehaztutako eran justifikatu ondoren. Antzezlana estreinatu dela justifikatzeko, kontratatzaileak egindako egiaztagiria, kontratua bera edo leihatilako orria aurkeztu beharko dira.

***13. artikulua***.– Diru-laguntzaren justifikazioa eta likidazioa.

Antzezlan-testu berriak sortzeko diru-laguntzen onuradunak kenduta, gainontzeko pertsona/entitate

2.– Las subvenciones previstas en las diferentes modalidades de la presente Orden serán incompatibles entre sí. Los solicitantes de estas ayudas no podrán presentar la misma solicitud en las modalidades de compañías de nueva creación y de producciones. En caso de hacerlo será la Comisión de Valoración la que, tras valorar cual es la modalidad que mejor se adecua a la solicitud, y previa consulta al solicitante opte por una de ellas.

***Artículo 11***.– Obligaciones de las personas o entidades beneficiarias.

Las personas o entidades beneficiarias de las subvenciones reguladas en la presente Orden deberán cumplir las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la notificación de concesión de la subvención las personas/entidades beneficiarias no renuncian expresamente a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico del Departamento de Hacienda y Administración pública y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas cuanta información le sea requerida en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las subvenciones.

d) Realizar expresa mención del patrocinio del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco en los ejemplares de los catálogos, programas, carteles anunciadores, fotografías y demás material gráfico. Dicho material se editará en euskera sin perjuicio del uso de otras lenguas.

***Artículo 12***.– Pago de la subvención.

Las subvenciones concedidas con cargo a la presente Orden se abonarán en los términos que a continuación se expresan:

a) El primer 47% de la cuantía subvencionada se hará efectivo al comienzo de los trabajos de la actividad subvencionada y previa notificación formal y expresa por parte de la persona o entidad beneficiaria respecto a la fecha de inicio de dichos trabajos.

b) El segundo 33% de la ayuda, y siempre a partir del 1 de enero de 2010, se hará efectivo previa justificación de los gastos correspondientes al importe recibido como primera parte de la ayuda concedida (47%).

c) Un último abono por el 20% restante previa acreditación de la realización del estreno de la obra subvencionada por medio de certificado expedido por el contratante, contrato u hoja de taquilla, acompañada de la debida justificación de la totalidad de la subvención concedida en los términos señalados en el artículo 13.

***Artículo 13.***– Justificación y liquidación de la subvención.

Las personas/entidades beneficiarias de subvenciones deberán presentar en los tres meses siguientes a la

onuradunek diruz lagundutako jarduera bukatutzat emandako egunetik hiru hilabeteren buruan honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Burututako jardueraren gaineko txosten zehatua.

b) Diru-laguntza jaso duen jarduerarekin zerikusia duten sarrera eta gastu guztien justifikagiriak, jatorrizkoak edo kulturako lurralde zerbitzuetan konpultsatutako fotokopiak.

Salbuespen gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen kargura emandako diru-laguntzak jardueraren gastuen aurrekontuaren erdia gainditzen ez duenean, emandako laguntza justifikatzeko agiriak baino ez dira aurkeztu behar.

Hala ere, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak 1. paragrafo honetan ezarritako epearen barruan hala eskatzen badu, pertsona onuradunek konpromisoa hartzen dute aurkeztutako aurrekontu osoa justifikatuko duten egiaztagiriak Zuzendaritzaren eskura uzteko.

c) Produkzioa burutu ondoren, guztiari buruzko gastuen eta sarreren balantzearen zinpeko aitorpena.

d) Helburu berbererako beste diru-laguntzaren bat jaso bada eta deialdi honetarako eskaera aurkezteko unean horren berri ez bazuen, horien zerrenda.

e) Katalogo, egitarau, iragarpen-kartel, argazki eta gainontzeko material grafiko edo soinuzkoaren hizkuntz bertsio desberdinen aleak, Kultura Sailaren babesa espresuki adierazita daukatela.

***14. artikulua.***– Likidazio-ebazpena.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero (betiere, helburua bete dela iritziz gero) edo beste edozein erakunde publiko zein pribatutatik ere diru-laguntzaren bat jasoz gero, diru-laguntzak esleitzeko emandako ebazpena aldatu egin ahal izango da. Horrelakoetan, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak likidazio-ebazpena emango du, diru-laguntzen zenbatekoak doitzeko.

***15. artikulua.***– Ez-betetzeak.

1.– Honelakoak izango dira ez-betetzeak:

a) Jasotako diru-laguntza osoa edo zati bat agindu honetan adierazitako jarduerez bestelakoetan erabiltzea.

b) Agindu honetan edo laguntza emateko egintzan adierazitako betebeharrak ez betetzea.

fecha de finalización de la actividad subvencionada la documentación siguiente:

a) Memoria detallada de la actividad realizada.

b) Justificantes, originales o fotocopias compulsadas en los servicios territoriales de cultura de los gastos relacionados con la actividad subvencionada.

Excepcionalmente, y cuando la financiación con cargo a los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco no supere el 50% sobre el presupuesto de gastos presentado, se presentarán los justificantes conforme a la cuantía equivalente al importe de la subvención concedida.

No obstante, cuando la Dirección de Promoción de la Cultura así lo requiera y dentro del plazo establecido en este mismo apartado 1, las personas beneficiarias asumen el compromiso de poner a disposición de aquella los justificantes que cubran el importe total del presupuesto presentado.

c) Declaración jurada del balance de gastos e ingresos de la totalidad de la actividad subvencionada una vez finalizada.

d) Relación de cualesquiera otras ayudas con destino al mismo objeto, de cuya efectividad no se tuviera conocimiento en el momento de presentación de la solicitud.

e) Ejemplares de las diversas versiones lingüísticas de los catálogos, programas, carteles anunciadores, fotografías y demás material gráfico o sonoro, donde conste expresamente la mención al patrocinio del Departamento de Cultura.

***Artículo 14.***– Resolución de liquidación.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta, y en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier entidad pública o privada, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión de las subvenciones. A estos efectos, por el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes se dictará la oportuna Resolución de liquidación, en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas.

***Artículo 15.***– Incumplimientos.

1.– Constituirán supuestos de incumplimiento:

a) La aplicación total o parcial de las subvenciones percibidas para actividades distintas de las previstas en la presente Orden.

b) El incumplimiento de las obligaciones establecidas en la presente Orden o en su caso, de las que se establezcan en el acto de concesión.

c) Diru-laguntzaren likidazioa egiteko ebazpenean adierazitako zenbatekoa epearen barruan ez itzultzea (hala badagokio).

d) Xedapen orokorretan nahitaez bete beharrekotzat jotako beste edozer ez betetzea.

2.– Ez betetzeren bat gertatuz gero, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, betiere, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren arabera.

II. KAPITULUA
ANTZERKI-TALDE SORTU BERRIEN PRODUKZIOETARAKO LAGUNTZAK

***16. artikulua***.– Diru-laguntza jaso dezaketen alorrak.

Antzerki-talde sortu berriek egindako produkzioak finantzatzeko dira laguntza hauek, betiere, produkzio horiek Euskal Autonomia Erkidegoan 2009. urtean garatzen edo hasten badira eta horien estreinaldia 2009ko urtarrilaren 1a 2010eko abenduaren 31 bitartean egiten bada.

***17. artikulua.***– Pertsona edo erakunde onuradunak.

Laguntza hauek eskatu ahal izateko, 3. artikuluko baldintzak betetzeaz gain, antzerki munduan hiru urteko ibilbidea baino gehiago ezingo dute izan.

Helburu horretarako, ez da antzerki-talde sortu berria kontsideratuko aurretik dagoen konpainia baten zuzenbidezko nahiz izatezko ondorengoa denean.

***18. artikulua.***– Diru-laguntzen zenbatekoak eta mugak.

1.– Antzerki-talde sortu berrien produkzioak finantzatzeko diru-laguntzetarako, hirurogei mila (60.000) euro erabiliko dira.

2.– Antzerki-talde sortu berrien produkzioetarako laguntzek proiektu edo jarduera bakoitzaren aurrekontu garbiaren (zergarik gabe) % 49 estali ahal izango dute, gehienez.

3.– Laguntza koprodukzio baterako eskatzen bada, eskatzaileak gutxienez ekoizpenaren % 33ko parte-hartzea izan beharko du. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak ez du inoiz gaindituko produktore eskatzailearen parte-hartzearen % 49a.

4.– Proiektu bakoitzari emandako diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa hogeita hamar mila (30.000) eurokoa izango da.

c) La no devolución de la cuantía que en su caso, se señale en la Resolución de Liquidación de la subvención, en el plazo para ello establecido.

d) Cualquier otra que sea de obligado cumplimiento por así establecerlo con carácter general cualquier otra disposición.

2.– La constatación de la existencia de alguno de estos supuestos determinará, en los términos y previo cumplimiento de lo previsto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, la obligación de reintegrar a la tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan.

CAPÍTULO II
AYUDAS A LAS PRODUCCIONES DE COMPAÑÍAS DE NUEVA CREACIÓN

***Artículo 16.***– Áreas subvencionables.

Las presentes ayudas van dirigidas a las producciones realizadas por compañías de teatro de nueva creación que se desarrollen o inicien durante el ejercicio 2009 en la Comunidad Autónoma del País Vasco y cuyo estreno se verifique entre el 1 de enero de 2009 y el 31 de diciembre de 2010.

***Artículo 17.***– Personas o entidades beneficiarias.

Podrán solicitar estas ayudas quienes además de cumplir los requisitos establecidos en el artículo 3 no tengan una trayectoria teatral de más de tres años.

A tal efecto, no se considerará compañía de teatro de nueva creación aquella que de hecho o de derecho constituya sucesión de otra anteriormente existente.

***Artículo 18.***– Cuantías y límite de estas ayudas.

1.– La cuantía de las ayudas a producciones de compañías de nueva creación asciende a sesenta mil (60.000) euros.

2.– Las subvenciones para las producciones de compañías de nueva creación, podrán alcanzar, como máximo, hasta un 49% del presupuesto neto (impuestos excluidos) de cada proyecto o actividad presentada a efectos de la subvención.

3.– Cuando la ayuda se solicite para una coproducción, el solicitante deberá tener una participación de, al menos, el 33% de la producción resultante. La subvención del Gobierno Vasco nunca será superior al 49% de la participación del productor solicitante.

4.– El importe máximo concedido a cada proyecto seleccionado no podrá ser superior a treinta mil (30.000) euros.

***19. artikulua.–*** Hautapena eta kuantifikazioa egiteko irizpideak.

1.– Diru-laguntzei buruzko ebazpen-proposamena osatzeko orduan, Balorazio Batzordeak irizpide hauek erabiliko ditu:

a) Aurkeztutako proiektuaren interesa antzerkiaren eta kulturaren ikuspegitik. Irizpide hau erabiltzerakoan kontuan izango da proiektua bere osotasunean eta honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste: antzerki-proposamenaren kalitatea eta interesa; proiektuak egiten duen ekarpena, bai proposamen dramaturgiko eta/edo eszeniko berriak garatzeko, bai Euskal Autonomia Erkidegoko ondare eszenikoa berreskuratzeko edo garatzeko (guztizko puntuazioaren % 50).

b) Proiektuko talde artistiko, tekniko eta kudeaketakoen ibilbidea (guztizko puntuazioaren % 25.)

c) Proposatutako proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa. Bereziki hartuko da kontuan aurrekontuaren egokitasuna, erabiliko diren enpresa-baliabideak eta proiektuaren kalitatea/prezioa erlazioa egokia izatea (guztizko puntuazioaren % 15.)

d) Proposatutako jardueran euskara erabiltzea. Irizpide hau ez da erabiliko testu batean oinarrituta ez dauden antzerki-proposamenen kasuan (guztizko puntuazioaren % 10).

2.– Artikulu honetan ezarritako balorazio-baremoaren % 50 lortzen ez duten proiektuak baztertu egingo dira, eta ezingo dira sartu aukeratutakoen artean.

3.– Proiektu bakoitzari dagokion diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, banaketa proportzionala erabiliko da. Alegia, diru-kopuru osoa proportzionalki banatuko da, balorazio-fasean eskabideek ezarri diren irizpideak aplikatuta lortu duten puntuazioari jarraituz. Banaketan 2.3 eta 18. artikuluetan adierazi diren mugak errespetatuko dira, eta, nolanahi ere, laguntza jasoko duten proiektuen kopurua eta ematen zaien diru-zenbatekoa agindu honetako 4. artikuluan xedatutakoaren mendean egongo dira.

III. KAPITULUA
PRODUKZIOETARAKO LAGUNTZAK

***20. artikulua.***– Diru-laguntza jaso dezaketen alorrak.

Laguntza hauek, honako deialdiaren onuradunak diren pertsonek edo taldeek Euskal Autonomia Erkidegoan 2009ko ekitaldian zehar garatuko edo hasiko dituzten, eta 2009ko urtarrilaren 1etik 2010eko abenduaren 31ra bitartean estreinatuko dituzten produkzioetara bideraturik daude.

***21. artikulua.***– Diru-laguntzen zenbatekoak eta mugak.

1.– Produkzioetarako laguntzen zenbatekoa hirurehun eta hogeita bost mila (325.000) eurokoa izango da.

***Artículo 19.***– Criterios de selección y cuantificación.

1.– Al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las subvenciones la Comisión de Valoración aplicará los siguientes criterios:

a) El interés teatral y cultural del proyecto presentado. A estos efectos se considerará el proyecto en su globalidad, teniendo en cuenta aspectos como la calidad y el interés de la propuesta teatral y la contribución del proyecto tanto al desarrollo de nuevas propuestas dramatúrgicas y/o escénicas como al desarrollo o recuperación del patrimonio escénico Vasco (50% de la puntuación total).

b) Trayectoria de los equipos artísticos, técnicos y de gestión implicados (25% de la puntuación total).

c) La viabilidad económica del proyecto propuesto teniendo en cuenta especialmente la idoneidad del presupuesto, los recursos empresariales implicados y la adecuada relación calidad-precio del proyecto (15% de la puntuación total).

d) La utilización del euskera en la actividad propuesta. Este criterio no será de aplicación en aquellas propuestas teatrales no sustentadas en un texto (10%).

2.– Quedarán descartados y no podrán incluirse en la selección aquellos proyectos que no obtengan al menos un 50% de puntos del baremo de valoración establecido en este artículo.

3.– Para la determinación del importe de la ayuda que corresponde a cada uno de los proyectos se aplicará un sistema de reparto en virtud del cual la dotación económica global establecida se distribuirá en proporción a la puntuación que hubiera obtenido cada proyecto en la fase de valoración conforme a los criterios establecidos. Dicho reparto respetará los límites establecidos en los artículos 2.3 y 18 y en cualquier caso, el número de proyectos subvencionados y la cuantía que se les asigne se ajustarán a lo establecido en el artículo 4 de la presente Orden.

CAPÍTULO III
AYUDAS A PRODUCCIONES

***Artículo 20.***– Áreas subvencionables.

Las presentes ayudas van dirigidas a las producciones que se desarrollen o inicien durante el ejercicio 2009 en la Comunidad Autónoma del País Vasco por las personas o grupos beneficiarios de la presente convocatoria y cuyo estreno se verifique entre el 1 de enero de 2009 y el 31 de diciembre de 2010.

***Artículo 21***.– Cuantías y límite de estas ayudas.

1.– La cuantía de las ayudas a producciones asciende a trescientos veinticinco mil (325.000) euros.

2.– Produkzioetarako diru-laguntzak aurkeztutako proiektu edo jarduera bakoitzaren onartutako aurrekontu garbiaren (zergak kenduta) % 49ra irits daitezke, gehienez. 23. artikuluan erregulatzen diren diru-sariak jasoko dituzten produkzio elebidun edo euskara hutsezkoen kasuan, muga hori % 55 izango da.

3.– Laguntza koprodukzio baterako eskatzen bada, eskatzaileak gutxienez ekoizpenaren % 33ko parte-hartzea izan beharko du. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak ez du inoiz gaindituko produktore eskatzailearen parte-hartzearen % 49.

4.– Proiektu bakoitzari emandako diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa laurogeita lau mila (84.000) eurokoa izango da.

***22. artikulua.***– Hautapena eta kuantifikazioa egiteko irizpideak.

1.– Diru-laguntzei buruzko ebazpen-proposamena osatzeko orduan, Balorazio Batzordeak irizpide hauek erabiliko ditu:

a) Aurkeztutako proiektuaren interesa antzerkiaren eta kulturaren ikuspegitik. Irizpide hau erabiltzerakoan kontuan izango da proiektua bere osotasunean eta honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste: antzerki-proposamenaren kalitatea eta interesa; proiektuak egiten duen ekarpena, bai proposamen dramaturgiko eta/edo eszeniko berriak garatzeko, bai Euskal Autonomia Erkidegoko ondare eszenikoa berreskuratzeko edo garatzeko (guztizko puntuazioaren % 50).

b) Talde artistiko eta teknikoen ibilbidea. Ildo horretatik, alderdi hauek hartuko dira kontuan: orain arte ekoitzitako ikuskizunen kalitatea eta kantitatea, horietako bakoitzak izan duen zabalkundea eta non programatu diren (guztizko puntuazioaren % 25).

c) Enpresaren antolaketa-egitura. Kontuan hartuko dira ondarea, egindako inbertsioen bolumena eta lanpostuen sorreran egin duen ekarpena (% 15).

d) Proposatutako jardueran euskara erabiltzea. Irizpide hau ez da erabiliko testu batean oinarrituta ez dauden antzerki-proposamenen kasuan (guztizko puntuazioaren % 10).

2.– Artikulu honetan ezarritako balorazio-baremoaren % 50 lortzen ez duten proiektuak baztertu egingo dira, eta ezingo dira sartu aukeratutakoen artean.

3.– Proiektu bakoitzari dagokion diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, banaketa proportzionala erabiliko da. Alegia, diru-kopuru osoa proportzionalki banatuko da, balorazio-fasean eskabideek ezarri diren irizpideak aplikatuta lortu duten puntuazioari jarraituz. Banaketan 2.3 eta 21. artikuluetan adierazi diren mugak errespetatuko dira, eta, nolanahi ere, laguntza jasoko duten proiektuen kopurua eta ematen zaien diru-zen-

2.– Las subvenciones para producciones, podrán alcanzar, como máximo, hasta un 49% del presupuesto neto aprobado (impuestos excluidos) de cada proyecto o actividad presentada a efectos de la subvención. En el caso de las producciones bilingües o exclusivamente en euskera que reciban las primas reguladas en el artículo 23, el límite establecido es del 55%.

3.– Cuando la ayuda se solicite para una coproducción, el solicitante deberá tener una participación de, al menos, el 33% de la producción resultante. La subvención del Gobierno Vasco nunca será superior al 49% de la participación del productor solicitante.

4.– El importe máximo concedido a cada proyecto seleccionado no podrá ser superior a ochenta y cuatro mil (84.000) euros.

***Artículo 22.***– Criterios de selección y cuantificación.

1.– Al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las subvenciones la Comisión de Valoración aplicará los siguientes criterios:

a) El interés teatral y cultural del proyecto presentado. A estos efectos se considerará el proyecto en su globalidad, teniendo en cuenta aspectos como la calidad y el interés de la propuesta teatral y la contribución del proyecto tanto al desarrollo de nuevas propuestas dramatúrgicas y/o escénicas como al desarrollo o recuperación del patrimonio escénico Vasco (50% de la puntuación total).

b) Trayectoria de los equipos artísticos y técnicos. A estos efectos se tendrán en cuenta aspectos como la calidad y la cantidad de los espectáculos producidos hasta la fecha, la difusión que ha obtenido cada uno de ellos y los eventos dónde han sido programados (25% de la puntuación total).

c) La estructura organizativa de la empresa. A estos efectos se tendrá en cuenta la dotación patrimonial, el volumen de las inversiones realizadas y la contribución realizada a la creación de puestos de trabajo (15%).

d) La utilización del euskera en la actividad propuesta. Este criterio no será de aplicación en aquellas propuestas teatrales no sustentadas en un texto (10%).

2.– Quedarán descartados y no podrán incluirse en la selección aquellos proyectos que no obtengan al menos un 50% de puntos del baremo de valoración establecido en este artículo.

3.– Para la determinación del importe de la ayuda que corresponde a cada uno de los proyectos se aplicará un sistema de reparto en virtud del cual la dotación económica global establecida se distribuirá en proporción a la puntuación que hubiera obtenido cada proyecto en la fase de valoración conforme a los criterios establecidos. Dicho reparto respetará los límites establecidos en los artículos 2.3 y 21 y en cualquier caso, el número de

batekoa agindu honetako 4. artikuluan xedatutakoaren mendean egongo dira.

***23. artikulua.***– Euskarazko produkzioetarako laguntzak.

1.– Diru-laguntza merezi duten proiektuak hautatu ondoren, modalitate honetara bideratutako guztizko kopurutik hirurogei mila (60.000) euro banatuko dira, euskarazko produkzioetarako pizgarri gisa, produkzio elebidun edo euskara hutsezkoen artean.

2.– Nahitaezko baldintza izango da ikuskizuna haurrentzat ez izatea. Gainera, kontzeptu honengatik, proiektu bakoitzari gehienez hamabi mila (12.000) euro emango zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoan lana lehenengo euskaraz estreinatzen bada, eta sei mila (6.000) euro gaztelaniaz estreinatzen bada. Bigarren kasu horretan, bertsio bien estreinaldien artean ezin dira sei hilabete baino gehiago igaro, eta 2010eko abenduaren 31 baino lehen egin beharko da.

3.– Edozein modutan, onuradun bakoitzari dagokion zenbatekoa kalkulatzeko orduan, bermatu egingo da horien proportzioa bat datorrela aurreko paragrafoan ezarritako mugen artean dagoenarekin, betiere hor ezarritako zenbatekoak gainditzen ez badira.

IV. KAPITULUA
FINKATUTAKO ANTZERKI TALDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK

***24. artikulua.***– Diru-laguntza jaso dezaketen alorrak.

Laguntza hauek 2009-2010 urteetan gauzatuko diren antzerki-proiektuetara daude bideratuta. Proposatzen den planari dagokionez, produkzio baten estreinaldia, gutxienez, 2009ko urtarrilaren 1etik 2010eko abenduaren 31ra egin beharko da, eta birak egiteko plan bat aurkeztu behar da, kontuan hartuta bai Euskal Autonomia Erkidegoko merkatua, bai kanpokoa.

***25. artikulua.***– Pertsona edo erakunde onuradunak.

Laguntza hauek eskatu ahal izateko, 3. artikuluko baldintzez gain, hauek ere bete beharko dira:

– Azken 10 urteotan, etengabe jardun izana arte eszenikoetako ikuskizunak sortzen eta taularatzen.

– Kudeaketa, produkzio eta banaketa talde oinarrizko bat izatea, gutxienez bi pertsonek osatua.

***26. artikulua.***– Diru-laguntzen zenbatekoak eta mugak.

1.– Finkatutako antzerki-taldeentzako diru-laguntzetarako bostehun eta hogeita hamabost mila (535.000) euro erabiliko dira.

proyectos subvencionados y la cuantía que se les asigne se ajustarán a lo establecido en el artículo 4 de la presente Orden.

***Artículo 23.***– Ayudas a las producciones en euskera.

1.– Una vez seleccionados los proyectos merecedores de subvención, de la cuantía total destinada a esta modalidad se repartirán sesenta mil (60.000) euros como incentivo a la realización de producciones en euskera o bilingües.

2.– Será condición imprescindible que no se trate de un espectáculo dirigido al público infantil y las cantidades destinadas a cada proyecto no podrán superar en ningún caso los doce mil (12.000) euros si el estreno en la Comunidad Autónoma del País Vasco se realiza primero en euskera, y los seis mil (6.000) euros si el estreno se realiza en castellano. En este segundo caso entre los estrenos de las dos versiones no deberá transcurrir un plazo mayor al de seis meses y deberá realizarse antes del 31 de diciembre de 2010.

3.– En todo caso, a la hora de calcular la cantidad que le corresponde a cada beneficiario se asegurará que la proporción de las mismas se corresponda con la existente entre los límites establecidos en el párrafo anterior, siempre y cuando no se superen las cantidades allí establecidas.

CAPÍTULO IV
AYUDAS A COMPAÑÍAS TEATRALES CONSOLIDADAS

***Artículo 24.***– Áreas subvencionables.

Las presentes ayudas van dirigidas a los proyectos teatrales destinados a desarrollarse durante los años 2009-2010. El plan propuesto deberá contener al menos una producción cuyo estreno se verifique entre el 1 de enero de 2009 y el 31 de diciembre de 2010 y de un plan de gira que contemple tanto el mercado de la Comunidad Autónoma del País Vasco como el mercado exterior.

***Artículo 25.***– Personas o entidades beneficiarias.

Podrán solicitar estas ayudas quienes además de cumplir los requisitos establecidos en el artículo 3:

– Hayan desarrollado una actividad ininterrumpida de creación y puesta en escena de espectáculos de artes escénicas los últimos 10 años.

– Consten de un equipo de gestión, producción y distribución básico compuesto como mínimo por dos personas.

***Artículo 26.***– Cuantías y límite de estas ayudas.

1.– La cuantía de las ayudas a la concertación de compañías teatrales consolidadas asciende a quinientos treinta y cinco mil (535.000) euros.

2.– Diru-laguntzak aurkeztutako proiektu edo jarduera bakoitzaren aurrekontu garbiaren (zergak kenduta) % 49ra iritsi daitezke, gehienez.

3.– Proiektu bakoitzari emandako diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa ehun eta berrogeita bost mila (145.000) eurokoa izango da.

***27. artikulua.***– Hautapena eta kuantifikazioa egiteko irizpideak.

1.– Diru-laguntzei buruzko ebazpen-proposamena osatzeko orduan, Balorazio Batzordeak irizpide hauek erabiliko ditu:

a) Aurkeztutako proiektuaren interesa antzerkiaren eta kulturaren ikuspegitik. Irizpide hau erabiltzerakoan kontuan izango da proiektua bere osotasunean eta honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste: antzerki-proposamenaren kalitatea eta interesa; proiektuak egiten duen ekarpena, bai proposamen dramaturgiko eta/edo eszeniko berriak garatzeko, bai Euskal Autonomia Erkidegoko ondare eszenikoa berreskuratzeko edo garatzeko (guztizko puntuazioaren % 25).

b) Talde artistiko eta teknikoen ibilbidea. Ildo horretatik, alderdi hauek hartuko dira kontuan: orain arte ekoitzitako ikuskizunen kalitatea eta kantitatea, horietako bakoitzak izan duen zabalkundea eta non programatu diren (guztizko puntuazioaren % 30).

c) Enpresaren antolaketa-egitura. Kontuan hartuko dira ondarea, egindako inbertsioen bolumena eta lanpostuen sorreran egin duen ekarpena (% 35).

d) Proposatutako jardueran euskara erabiltzea (guztizko puntuazioaren % 10).

2.– Artikulu honetan ezarritako balorazio-baremoaren % 50 lortzen ez duten proiektuak baztertu egingo dira, eta ezingo dira sartu aukeratutakoen artean.

